

BIZITZA INDEPENDENTEA

izateko gida



NON, NOLA ETA NOREKIN BIZI
ERABAKITZEKO BALIABIDEAK
ETA AUKERAK





EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN ELKARTE KOORDINATZAILEA

BIZITZA INDEPENDENTEA

izateko gida

AURKIBIDEA

ELKARTEAN. "Berdintasuna lortzeko gizartea aldatzen"	4
AURKEZPENA	6
NORENTZAT DA GIDA HAU?	8
ZERTARAKO BALIO DEZAKE GIDA HONEK?	9
ZER DA BIZITZA INDEPENDENTEA?	10
¿ZER BALDINTZA BEHAR DIRA BIZITZA INDEPENDENTEA IZATEKO?	12
ZER BALIABIDE, AUKERA ETA PRESTAZIOK LAGUN DEZAKETE BIZITZA INDEPENDENTEA IZATEN?	14
Etxebizitza duina, egokia eta irisgarria	15
Laguntza pertsonala	21
Bizitza independentea erraztu dezaketen beste zerbitzu batzuk	25
Etxean autonomia pertsonala izateko eta komunitatean parte hartzeko laguntza-produktuak	26
Diru-sarrera nahikoak bermatzea	30
ELKARTEAN ELKARTEAREN ONDORIOAK ETA ALDARRIKAPENAK, EUSKADIN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT BIZITZA INDEPENDENTEKO EREDU BAT BERMATZEKO AUKERA, BALDINTZA, ALTERNATIBA ETA BALIABIDEETAN AURRERA EGITEARI BEGIRA	40



ELKARTEAN

Berdintasuna lortzeko gizarte eraldatzen



elkartean Euskadiko Desgaitasun Fisikoa Duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea da.

Pertsona guztiak barne hartuko dituen gizartea lortzeko dihardu lanean; gizarte irisgarria, justua, ekitatiboa, eta desberdintasunik gabe gure eskubideak gauzatzeko modukoa.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonak eskubide osoko herritar gisa, aukera-berdintasunerako duten eskubidea defendatzen dugu, gizarte inklusiboaren barruan.

Izan ere, desgaitasuna duten pertsonen inklusiorako lortzen diren aurrerapauso guztiak herritar guztien onurarako dira.

Hauetako dira bere jarduerak-esparruak:

BIZIMODU INDEPENDENTEA Non, nola eta norekin bizi nahi dugun erabakitze eskubidea	ENPLEGUA Lan-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrian aritzeko eskubidea.	HEZKUNTZA Norberaren ezaugarrietara egokitzen den hezkuntza-eskaintza eta ingurunean ikasteko eskubidea.
IRISGARRITASUNA Pertsona ororentzako inguru, prozesu, produktu eta zerbitzuak izateko eskubidea.	OSASUNA Kalitatezko osasun- eta soziosanitario arreta izateko eskubidea.	EMAKUMEA Eskubide berdintasuna eta diskriminazio eza desgaitasuna duten emakume eta neskentzat.

ELKARTEAN OSATZEN DUTEN ELKARTEAK HIRU LURRALDEETAN DAUDE ORDEZKATUTA



Simón Bolívar plaza 9 behea
01003 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 225 516
www.eginez.org
info@eginez.org



Ondarreta pasealekua 5 behea
20018 San Sebastián
Tel.: 943 316 770
www.elkartu.org
elkartu@elkartu.org



Blas de Otero 63 behea
48014 Bilbao
Tel.: 944 053 666
www.fekoor.com
fekoor@fekoor.com



AURKEZPENA

edozein arlotako informazioa, aholkularitza eta orientazioa emateko gida



DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK MODU INDEPENDENTEAN BIZITZEKO ETA KOMUNITATEAN SARTUTA EGOTEKO ESKUBIDEA DUTE

(Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 19. artikulua).

Desgaitasuna duten pertsonak modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartuta egoteko eskubidea dute (Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 19. artikulua). Eskubide hori gauzatu ahal izateko, baldintza egokiak, baliabideak eta aukerak eduki behar dira: etxebizitza irisgarria, laguntza pertsonala eta bestelako zerbitzu indibidualizatu eta malguak, autonomia pertsonalean laguntzeko produktuak, baliabide ekonomiko nahikoak desgaitasunaren gainkostua kontuan hartuta...

Gida honen xedea honako hau da: desgaitasuna duten pertsonen eta hainbat arlotako informazioa, aholkularitza eta orientazioa (gizarte-zerbitzuei, enpleguari, etxebizitzari, eta abarri buruzkoa) eskaintzen dieten profesionalak laguntzeko tresna bat izatea, bizitza independentea izaten hasteko mesedegarriak izan daitezkeen gaur egungo laguntza, baliabide eta aukera eskuragarriak ezagut ditzaten. Ez da gida zehatza, ez baititu desgaitasuna duten pertsonentzako baliabide guztiak garatzen –horretarako, Desgaitasun fisikoak duten pertsonentzako baliabideen gida (Elkartean, 2017) kontsulta daiteke–, bizitza independentearekin lotura handiena dutenak baizik.

Nahiz eta prestazio, laguntza eta baliabide eskuragarrien egungo sistema oraindik defizitarioa den eta ez dituen beti eskaintzen kolektiboak bizitza independentea izateko eskubidea gauzatu ahal izateko behar bezainbeste aukera, gida honek gaur egungo egoera hobetzen lagun dezake honela ere:

1

Desgaitasuna duten pertsonak ahalduz, gaur egungo baliabideen eta aukeren sorta hobeto ezagutzen lagunduta eta erreferentziak emanda, eta eskura dituzten tresna guztiak eskatzera, baliatzera eta/edo erabiltzera animatuta, beren eskubideen defentsan aktiboki aritzera bultzatzeko.

2

Arlo guztietan (gizarte-zerbitzuak, enplegua, etxebizitza eta abar) laguntza, informazioa, aholkularitza eta orientazioa ematen dieten profesionalak desinstituzionalizazioan oinarritutako bizitza independentea lortzeko prozesuak errazteari buruzko ikuspegi globala, zabalagoa eta zeharkakoagoa emanez.



Nolanahi ere, ELKARTEAN elkarteak egungo baldintzak hobetu beharra aldarrikatzen jarraituko du, desgaitasuna duten pertsonen bizitza independentea izateko eta komunitatean sartuta egoteko duten eskubidea gauzatu ahal izatea bermatzeko.

NORENTZAT DA GIDA HAU?



Desgaitasuna
duten Euskadiko
herritarrentzat.

Herritarrei, oro har, eta, desgaitasuna duten pertsoneri, bereziki, zuzendutako arlo guztietako informazio-, orientazio- eta arreta-zerbitzuak ematen dituzten profesionalari. Honako zerbitzu hauetaz ari gara, besteak beste:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak.
- Desgaitasuna eta mendekotasuna balioesteko eta orientatzeko zerbitzuak.
- Herritarrei zuzendutako arlo guztietako informazio-, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak.
- Osasun-sistemako gizarte-laguntza.
- Beste edozein arlotako laguntza edo arreta ematen duten profesionalak: enplegu, etxebizitza, hezkuntza, DSBE, laguntza-produktu, eta abarren arloetakoak.
- Hirugarren sektore sozialeko erakundeetako laguntzako profesionalak.

ZERTARAKO BALIO DEZAKE GIDA HONEK?



1

2

Desgaitasuna duen pertsona bat bazara eta non, nola eta norekin bizi askatasunez aukeratu nahi baduzu, prozesu hori erraztu diezazuketen baliabide, alternatiba, aukera eta prestazio eskuragarriei buruzko informazio erabilgarria emango dizu.

Laguntzako profesional bat bazara, desgaitasuna duten pertsoneri edozein arlotako informazioa, orientazioa edo arreta emateko zerbitzuetakoa, haiek bizitza independentea izateko eskubi-dea gauzatzea bermatzeko esku-har-tze bat egiten lagun diezazuke.

ZER DA BIZITZA INDEPENDENTEA?

Bizitza independentea izateak honako hau esan nahi du: desgaitasuna duten pertsonak, gizartearen barruan egonda eta gizartean erabateko parte-hartzea izanda, hautuak egiteko, beren bizitzak kontrolatzeko eta eragiten dieten alderdi guztietan erabakiak hartzeko beharrezko baliabide guztiak izatea.

- Hautuak egiteko, beren bizitzak kontrolatzeko eta eragiten dieten alderdi guztietan erabakiak hartzeko (bizimodutik hasita eguneroko kontuetara) beharrezko baliabide guztiak izatea da.
- Non, nola eta norekin bizi nahi duten aukeratu ahal izatea, gainerako pertsonen baldintza berberetan, bizi-sistema jakin baten arabera bizitzera behartuta egon gabe.
- Komunitatearen barruan berdintasun-baldintzetan egoteko eskubidea gauzatzea da.
- Haien hautatutako laguntzak izatea, pertsonalizatuak eta malguak, beren bizitza eta komunitateko bizitza errazteko.

Bizitza independentearen kontzeptua bizitza autonomoarena baino askoz urrunago doa, izan ere:

1

Ez da mugatzen eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak eta jarduera instrumentalak modu autonomoan egitera; aitzitik, autogobernuarekin, autodeterminazioarekin eta nortasuna askatasunez garatzearekin lotuta dago. Aukeratzeko askatasuna eta norbere bizitzan eragiten duten alderdietako erabakiak kontrolatzeko ahalmena izatea, gizartearen barruan determinazio aske eta interdependentsia maila ahalik eta handienak izanda¹.

2

Ez da eguneroko bizitzako jardueretara mugatzen; aitzitik, komunitateko bizitzan aktiboki parte hartzea esan nahi du, gizabanako baten garapen pertsonalaren eta komunitatearen parte izatearen alderdi sozialaren arteko interdependentsian oinarrituz.

¹ *Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordearen 5. ohar orokorra (2017), modu independentean bizi eta komunitatearen barruan egoteko eskubidearen ingurukoa.*



Hau da



Ez da




<p>Non, nola eta norekin bizi aukeratu ahal izatea.</p>	<p>Bizi-sistema jakin baten arabera bizitzera behartuta egotea, adibidez: instituzionalizazioaren kasuan.</p>
<p>Hautuak egiteko, beren bizitzak kontrolatzeko eta eragiten dieten alderdi guztietan erabakiak hartzeko beharrezko baliabide guztiak izatea.</p>	<p>Erabakiak hartzeko bitartekorik eta aukerarik ez izatea.</p>
<p>Komunitatearen bizitzako esparru guztietan aktiboki parte hartzea.</p>	<p>Baztertuta geratzea, isolatuta, inklusiboak ez diren espazio bananduetan.</p>
<p>Hainbat laguntza jasotzeko aukera izatea, laguntza pertsonala barne, bizitzea eta komunitatearen barruan egotea errazteko.</p>	<p>Bizitzea eta komunitatearen barruan egotea errazten duten laguntzak, pertsonala eta bestelakoak, jasotzeko aukerarik ez izatea.</p>
<p>Herritar guztientzako instalazioak eta zerbitzu komunitarioak desgaitasuna duten pertsonentzat eskura egotea, berdintasun-baldintzetan, eta pertsona horien beharrianak kontuan hartzea.</p>	<p>Komunitateko instalazio eta zerbitzu guztietan, arlo guztietan, irisgarritasun unibertsalik ez izatea.</p>
<p>Norberaren bizitzaren protagonista eta arduraduna izatea, erabakiak hartzea eta horren ondorioak beren gain hartzea.</p>	<p>Zerbitzuak gehiegizko babesean eta paternalismoan oinarritzea eta, horren ondorioz, haien bizi-sistema etengabe gainbegiratuta egotea edo erabakiak hirugarrenen pertsonen gain hartzea.</p>

ZER BALDINTZA BEHAR DIRA BIZITZA INDEPENDENTEA IZATEKO?

Desgaitasuna duten pertsonen Bizitza Independentea izateko eskubidea GAUZATZEKO NAHITAEZKOA DA non, nola eta norekin bizi nahi duten erabakitzeke benetako abagune,

aukera eta alternatibak edukitzea, instituzionalizatuta edo bizi-sistema jakin baten arabera bizitzera behartuta egon gabe. Horretarako, baliabide eta laguntzak behar dituzte, beren beharren arabekoak eta egokiak, komunitatearekiko isolamendua edo bereizketa deuseztatzeko eta beren parte-hartze aktiboa bermatzeko. **HORI LORTZEKO, honako baldintza hauek bermatu BEHAR DIRA:**





ZER BALIABIDE, AUKERA ETA PRESTAZIOK LAGUN DEZAKETE BIZITZA INDEPENDENTEA IZATEN?



Nahiz eta gaur egun eskuragarri dauden baliabide eta prestazioak ez diren nahikoak bizitza independentea izateko eskubi-dea bermatzeko, ibilbide horri ekiten nolabait lagun dezaketen aukera eskuragarriak jasotzen dira.


1. ETXEBIZITZA DUINA, EGOKIA ETA IRISGARRIA

Zer laguntza daude, etxebizitza-aukera bakoitzaren arabera?

	AUKERAK	LAGUNTZAK
Jabetzako etxebizitza	Merkatu libreko etxebizitza	- Etxebizitza libre erabilia erosteko laguntzak
	Babes ofizialeko etxebizitza (BOE)	- Babes ofizialeko etxebizitzak erosteko laguntzak - Etxebizitza babestuak trukatzeko poltsa
Alokairuko etxebizitza	Merkatu libreko alokairuko etxebizitza	- Udal batzuen laguntzak
	Etxebizitza sozialak	- Etxebizitza sozialak - Babes ofizialeko alokairuko etxebizitzak - Zuzkidura-bizitokiak - Etxebizitza hutsak eskuratzea (Bizigune programa) - Etxebizitza hutsak eskuratzea (ASAP programa) - Gaztelagun programa

Jarraian, aukera horietako bakoitza deskribatzen da, horietarako sarbidea izateko erreferentziekin:

1/ JABETZAKO ETXEBIZITZA:



Merkatu librearen bidez edo babes ofizialeko eskaintzaren bidez eskura daiteke. Bi kasuetan, etxebizitza eraiki berria izan daiteke edo erabilia edo bigarren eskukoa.

1.1. Merkatu libreko jabetzako etxebizitza («etxebizitza librea»)

Zer da?

Merkatuko prezioan eskuratu daitekeen etxebizitza da. Prezioak ez du mugarik, eskaintzaren eta eskariaren printzipio ekonomikoaren arabera ezartzen da. Beraz, babes ofizialeko etxebizitzena edo etxebizitza sozialena baino handiagoa da, horienak mugatuta daudelako.

Nola lor daiteke eskaintza horretarako sarbidea?

- Higiezin agentzien bidez (bulego fisikoak eta online plataformak).
- Komunikabideetako iragarkien bidez.
- Etxebizitza saldu edo alokatu nahi duten partikularren bidez.

Zein laguntza jaso daitezke aukera hori baliatzeko?

Etxebizitza libre erabilia eskuratzeko laguntzak daude.

- Etxebizitza libre erabilia erosteko dirulaguntzak dira, itzuli beharrik gabekoak. Dirulaguntza horiek lortzeko baldintza bat bete behar da: etxebizitzak administrazio publikoek birgaitze integratuko eremutat edo eremu degradatutat jotzen duten udalerrigune batean egon behar du.
- Sarbidea: Etxebideren bidez.

Informazio gehiago: https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contpest/eu/contenidos/informacion/programas_ayudas_capv_3/eu_def/index.shtml

1.2. Babes ofizialeko etxebizitza (BOE):

Zer da?

Administrazio publikoek etxebizitzaren arloko politika publikoen esparruan sustatutako etxebizitza-eskaintza da. Etxebizitza horien gehieneko prezioak mugatuta edo tasatuta egoten dira, errentarik baxuenak dituzten herritarrek beren ahalmenaren arabera arrazoizko prezio batean eskura ditzaten.

Trukean, etxebizitzak erabiltzeko eta saltzeko araudi berezia du: eroslearen ohiko bizilekua izan behar du. Gainera, erosleak etxebizitza saldu nahi badu, prezioa Administrazioak ezarriko du eta administrazioak berak erosteko lehentasunezko eskubidea izango du. Etxebizitza ezingo da etxebizitza libre gisa saldu BOE gisa sailkatuta dagoen bitartean.

Zer motatako BOEak daude?

- Araubide orokorrekoak (prezio txikikoak, diru-sarrera gutxien dituztenentzat).
- Araubide tasatukoak (prezio handiagokoak, diru-sarrera handiagoak dituztenentzat).

Nola lor daiteke eskaintza horretarako sarbidea?

- Sarbidea: Etxebideren eta udal etxebizitza-erakunde publikoen bidez.

Informazio gehiago: <https://apps.euskadi.eus/x39-appcont/eu/x91aEtxebideWar/geo/maint?locale=es>

Zein laguntza jaso daitezke aukera hori baliatzeko?


- Babes ofizialeko etxebizitzak erosteko laguntzak. Honako hauek dira:
 - Finantzaketa kualifikatua, ohiko bizileku iraunkorra izango den etxebizitza bakarra erosteko.
 - Mailegu kualifikatua, eskuratzailari zuzenean ematekoa edo mailegu kualifikatuaren hipoteka-kargaren ordainketan eskuratzaila subrogatzekoa.

Informazio gehiago (Etxebide): https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contpest/eu/contenidos/informacion/programas_ayudas_capv_3/eu_def/index.shtml

- Etxebizitza babestuak trukatzeko poltsa. Babes ofizialeko jabetza-araubideko etxebizitza baten jabea izanik arrazoi pertsonalengatik, lan-arrazoiengatik edo espazio-arrazoi hutsengatik etxer aldatu beharra dagoenerako. Babes Publikoko Etxebizitzak Trukatzeko Poltsa honi esker, bere etxebizitza trukatzeko prest dagoen beste etxebizitza babestu baten jabe bat aurkitu daiteke.

Informazio gehiago (Etxebide): https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contpest/eu/contenidos/informacion/programas_ayudas_capv_3/eu_def/index.shtml

2/ ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA:



MERKATU LIBREKO ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA

Udal mailan, udal batzuek merkatu libreko alokairuak ordaintzeko laguntza-deialdiak egiten dituzte, besteak beste, desgaitasuna duten pertsonentzat.

Nora jo: zure udalean galdetu halako laguntzarik dagoen eta, hala bada, nola eskuratu daitezkeen.

ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA SOZIALAK:

Zer aukera daude?

Etxebizitza sozialak: Eusko Jaurlaritzak sustatutako alokairuko etxebizitzak dira. Gehieneko errenta dute, Administrazioak finkatua.

Informazio gehiago (Etxebide): https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contpest/eu/contenidos/informacion/informacion_alquiler/es_etxe-cont/index.shtml

Alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak

Oro har, hainbat udalek sustatzen dituzte eta gehieneko errenta mugatuta dute.

Informazio gehiago (Etxebide): https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contpest/eu/contenidos/informacion/informacion_alquiler/es_etxe-cont/index.shtml

Zuzkidura-bizitokiak

Ez dira etxebizitzak, ekipamendu publikoak baizik; beraz, ezingo dira inoiz saldu. Alokairuaren ordean, hilerokan bat ordaintzen da, bertan bizi ahal izateko. Kano-na bizitokia behar duen bizikidetzaren diru-sarreraren arabera finkatzen da.

Informazio gehiago (Etxebide): https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contgen/eu/contenidos/informacion/tipologia_alquileres/es_etxe-cont/tipologia_alquileres.html

Etxebizitza hutsak eskuratzea (Bizigune programa)

Jabeek Eusko Jaurlaritzari alokatzeko utzitako etxebizitzak eskuratzeko aukera ematen du. Erabiliak edo erdiberriak izaten dira. Errenta familia-unitatearen diru-sarreraren arabera finkatzen da.

Informazio gehiago (Etxebide): https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contgen/eu/contenidos/informacion/requisitos_reg_etxeb/es_def/index.shtml

ASAP programa (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa)

Hutsik dauden etxebizitza pribatuak alokairu merkatuan errentarientzako arrazoizko prezio batean jartzea ahalbidetzen du. Hutsik dauden etxebizitzaren jabeek programan parte hartzea sustatzeko, aseguru-polizen bidezko berme-sistema bat ezartzen da, ez-ordaintzeak, kalteak eta laguntza juridikoa estaltzeko. Trukean, Eusko Jaurlaritzak alokairuen gehieneko errentak finkatzen ditu eta, horren bidez, merkatu librean baino prezio baxu eta lehiakorragoak bermatzen ditu. Horri esker, etxebizitza-eskatzaileek alokairuko etxebizitzak eskuratzeko aukera gehiago dituzte.

Informazio gehiago (Etxebide): https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contgasa/eu/contenidos/informacion/etxecont_solicita_asap_subhome/es_def/index.shtml

Gaztelagun programa

18 urtetik 35era bitarteko gazteen emantzipazioa bultzatzeko programa. Horretarako, alokairuaren zati bat ordaintzeko zuzeneko laguntzak ematen dira.

Informazio gehiago (Alokabide): <https://www.alokabide.euskadi.eus/gaztelagun/eu/>

Zer beste laguntza daude etxebizitzaren kostuei aurre egiteko?

Etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (etxebizitza-eskubide subjektiboa babesteko aukera)

Ez etxebizitza duin eta egokirik, ez hori lortzeko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak Euskadiko Etxebizitzaren Legean aitortuta dagoen etxebizitzarako eskubide subjektiboa gauzatzeko aukera bat da.

Kontuan hartuta babes publikoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren multzoa ez dela nahikoa premia hori estaltzeko, onuradunei merkatu babestutik kanpoko alokairuko etxebizitza bat (merkatu libreko alokairuko etxebizitza) eskuratzeko ahalbidetzen dien prestazio ekonomiko publiko bat lortzeko aukera subsidiario hau aurreikusten da.

Informazio gehiago (Etxebide): <https://www.etxebide.euskadi.eus/informazioa/es-kabidea-nola-eman/x39-contdsv/eu/>

Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO)

Aldian behingo prestazio ekonomikoa da, diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) osagarri gisa antolatua eta ohiko etxebizitza edo bizitokiaren alokairu-gastuak ordaintzea du xede, edozein dela ere modalitatea: errentamendua, azpierreantamendua, baterako errentamendua, ostatatzea eta logelen alokairua.

Informazio gehiago (Lanbide-EEZren bidez): https://www.lanbide.euskadi.eus/dirulaguntza/-/diru_laguntza/2015/etxebizitzarako-prestazio-osagarria-epo-2015/

Kotizazio gabeko pentsioaren (KGP) etxebizitzarako osagarria

Alokairuko etxebizitza batean bizi diren pertsonen kotizazio gabeko pentsioa (KGP) osatzeko laguntza ekonomiko bat da.

Informazio gehiago (lurralde bakoitzeko foru-aldundietako Gizarte Ekintza edo Gizarte Politikako sailen bidez):

ARABA

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/complemento-pnc-para-alquiler-de-vivienda>

BIZKAIA

https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=7729&idioma=EU

GIPUZKOA

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/1390>

Zer laguntza daude etxebizitza birgaitzeko eta egokitzeko?

Eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak, partikularrentzat eta jabekideen erkidegoentzat.

Bizigarritasuna hobetzea, desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna ahalbidetzea eta energiaren kontsumoa murriztea helburu duten birgaitze-lanetarako laguntza publikoak dira, partikularrei eta jabekideen erkidegoei zuzenduak. Besteak beste, etxebizitzak eta haien sarbideak indarrean dagoen desgaitasun fisikoa duten pertsonen inguruko araudira egokitzeko kostuen zati bat estaltzera bideratzen dira.

Informazio gehiago (Etxebide): https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contgen/eu/contenidos/informacion/renove_rehabilitacion/es_def/index.shtml#tabpart_com

Etxebizitza irisgarri egiteko laguntzak.

Desgaitasuna duten pertsonak etxebizitza irisgarri egiteko dituzten kostuen zati bat estaltzeko laguntzak dira, lurralde bakoitzeko foru-aldundiko Gizarte Ekintzako edo Gizarte Politikako sailak aurreikusiak.

Informazio gehiago (lurralde bakoitzeko foru-aldundietako Gizarte Ekintza edo Gizarte Politikako sailen bidez):

ARABA. <https://web.araba.eus/eu/servicios-sociales/ayudas-economicas-discapacidad>

BIZKAIA. https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=4658&Idioma=EU

GIPUZKOA. <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda>

Zer obra egin ditzakezu eraikinaren irisgarritasuna bermatzeko eta zer pauso eman?

Irisgarritasun unibertsalari eta jabetza horizontalari buruzko gidan (Elkartean, 2020), horrekin lotutako eskubideak jasotzen dira, baita jabetza horizontalaren esparruko edozein irisgarritasun-premiaren aurrean eskubide horiek gauzatu ahal izateko edo exijitzeko bideak ere.

<https://elkartean.org/pdf/irisgarritasun-unibertsala-eta-jabetza-horizontala.pdf>

2. LAGUNTZA PERTSONALA



Zer da laguntza pertsonala?

Desgaitasuna duen pertsonari bizitza independentea edukitzea ahalbidetzeko tresna bat da laguntza pertsonala, desgaitasuna duen pertsonak berak zuzendua.

Zer funtzio betetzen ditu laguntzaile pertsonalak?

- Desgaitasuna duen pertsona bakoitzak finkatuko ditu zereginak, laguntzaile pertsonalarekin negoziatuta, bien arteko kontratu-harremanaren esparruan.
- Askotariko funtzioak eta zereginak izan daitezke, honako hauen arabera:
 - Pertsona bakoitzaren ezaugarriak, beharrak eta lehentasunak.
 - Haren egoeraren bilakaera eta inguruabarrak (enplegu bat eskuratzeko aukera, eskolaratzekoa, etab.).
- Bere eginkizunak ez dira mugatzen pertsonari eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak edo jarduera instrumentalak egiten laguntzera; aitzitik, desgaitasuna duen pertsonari bizitza independentea izaten eta komunitateko bizitzaren esparru guztietan aktiboki parte hartzen laguntzea da bere egitekoa.

Zer aukera daude laguntza pertsonaleko zerbitzuak kontratatzeko?

- 1) **Desgaitasuna duen pertsonaren (kontratatzailea) eta laguntzaile pertsonalaren (kontratatua) artean lan-kontratu bat** egitea, alde batera utzita bi alderdiak zuzenean jarri diren harremanetan edo enplegu agentzia batek bideratu duen harreman hori. Desgaitasuna duen pertsona honako zeregin hauetaz arduratuko da: laguntzaile pertsonala kontratatzeaz, kontratua enplegu bulegoan erregistratzeaz, kontratuari Gizarte Segurantzaren alta emateaz, enplegu-emaileari dagozkion Gizarte Segurantzaren kostuak ordaintzeaz, laguntzaile pertsonalari soldata ordaintzeaz, kontratazioa kudeatzeaz eta sortzen diren gorabeheraz (bajak, oporrak, kontratua amaitzea, etab.). Aholkularitza-enpresa baten, enplegu-agentzia baten edo beste erakunde batzuen laguntza jaso daiteke kontratua egiteko, Enplegu Zerbitzuetan erregistratzeko, Gizarte Segurantzako alta kudeatzeko, etab.
- 2) Zerbitzua kontratatzen duen desgaitasuna duen pertsonaren eta laguntzaile pertso-

nalaren artean zerbitzuak emateko kontratu bat egitea, azken hori profesional autonomoa bada.

Desgaitasuna duen pertsonak (kontratatzailea) eta laguntzaile pertsonalak zerbitzuak emateko kontratu hori sinatuko dute eta, hala, kontratatzaileak bere gain hartuko du zerbitzuaren truke ezartzen den zenbatekoa (normalean hilekoa) ordaintzeko betebeharra. Kasu horretan, ez da Gizarte Segurantzako alta kudeatu behar, ezta kostu hori ordaindu behar ere, kontratatutako pertsonaren kontura baita (pertsonek horrek Gizarte Segurantzari bere autonomo kuota ordainduko dio zuzenean).

- 3) Laguntza pertsonaleko zerbitzuak ematen dituen **erakunde pribatu batekin** (gizarte-erakundea edo enpresa) **kontratu bat** sinatzea, zerbitzu hori emateko. Zerbitzua kontratatzen duen desgaitasuna duen pertsonak zerbitzua kudeatzen duen erakundearekin adostutako kostua ordaindu besterik ez du egin behar. Erakundea arduratuko da honako zeregin hauetaz: laguntzaile pertsonala kontratatzeaz, enpresaren konturako Gizarte Segurantzako kostuak ordaintzeaz, laguntzaile pertsonalari soldata ordaintzeaz, kontratazioa kudeatzeaz eta sortzen diren gorabeheretz (bajak, oporrak, kontratua amaitzea, etab.).

Zer kontratu mota formalizatu beharko litzateke eta zer pauso eman beharko lirateke Gizarte Segurantzari?

Desgaitasuna duen pertsonak (kontratatzailea) eta laguntzaile pertsonalak (kontratatuak) lan kontratu bat formalizatuz gero (aurreko ataleko 1. puntua):

- Ez dago kontratu mota espezifikorik, edozein motatako kontratuak formalizatu daitezke (aldi baterakoa edo mugagabea, probaldia barne edo probaldirik gabe).

Esteka honen bidez, dauden kontratu ereduak deskarga daitezke:

<https://www.sepe.es/HomeSepe/empresas/Contratos-de-trabajo/modelos-contrato.html>

- Kontratua Lanbide-EEZn erregistratu behar da (bai lan-eskaintza Lanbide-EEZk kudeatu badu, bai beste bide informal batzuetatik kudeatu bada).

Nora jo:

- *Aurrez aurre, Lanbide-EEZren edozein bulegotara.*
- *Telefonoz: 945 160 601*
- *Lanbide-EEZren webgunera: <https://www.lanbide.euskadi.eus/lanbide-hasiera/>*

- Kontratuaren Gizarte Segurantzako alta ere kudeatu behar da. Gaur egun, ez dago laguntzaile pertsonalaren araubide espezifikorik; beraz, etxeko langilearen araubidearen arabera egiten da.

Nora jo:

- *Aurrez aurre, Gizarte Segurantzaren edozein bulegotara.*
- *Webgunera: <https://portal.seg-social.gob.es/wps/portal/importass/importass>*

Pertsona autonomo batekin zerbitzu-emate kontratu bat eginez gero (aurreko ataleko 2. puntua):

- Bi alderdiek kontratu horren edukia negoziatu, formalizatu eta sinatu behar dute. Ez da beste ezer egin behar, ez Lanbiden, ezta Gizarte Segurantzaren ere.

Zerbitzu profesionaletarako merkataritza-kontratuen ereduak esteka honetan eskura daitezke:
<https://www.infoautonomos.com/utilidades/plantillas/contrato-de-prestacion-de-servicios/>

Enpresa edo erakunde pribatu batekin zerbitzu-emate kontratu bat eginez gero (aurreko ataleko 3. puntua):

- Oro har, enpresak edo erakundeak zerbitzuak emateko kontratu-eredu jakin bat izaten du, horren baldintzak zerbitzua kontratatzen duen eta desgaitasuna duen pertsonarekin negoziatzen dira eta bi alderdiek sinatzen dute. Ez da beste ezer egin behar, ez Lanbiden, ezta Gizarte Segurantzaren ere.

Zein dira laguntzaile pertsonalaren lan-baldintzak?

- Lan-baldintzak (soldata, oporrak, ordutegia, etab.) desgaitasuna duen pertsonak (kontratatzailea) eta laguntzaile pertsonalak edo zerbitzua eskaintzen duen erakundeak negoziatzen dituztenak izango dira.
- Laguntzaile pertsonalarekin lan-kontratu bat eginez gero, etxeko langileen araubideko lan-baldintzak kontuan hartu behar dira.

Zer bide daude laguntzaile pertsonal bat aurkitzeko/hautatzeko?

1) Bide formalak:

- Enplegu-agentziak, enpleguaren arloko webguneak (Infojobs edo antzekoak).
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.

2) Bide informalak: «ahoz ahokoa» edo pertsona ezagunek edo erreferentziazko erakundeek laguntza pertsonaleko eginkizun horiek betetzen dituzten pertsoneri buruz ematen dituzten erreferentziak.

Zer pauso eman behar dira Lanbideren bidez laguntzaile pertsonal bat kontratatzeko?

- Lanbide-EEZn laguntzaile pertsonal bat kontratatzeko lan-eskaintza bat aurkez daiteke.
- Zehazki, gaur egun, lan-eskaintza hori formalizatzeko kodea «ETXE-LAGUNTZAILEAK» (57101013 kodea) da. «Etxeko zainketa pertsonaletako langileak» (5710) kategoriaren barruan dago.

https://apps.lanbide.euskadi.net/apps/TP_MENU_PROFESION?LG=E&ML=ESTMEN1&IDEM=57101013

Nola erregistratu lan-eskaintza?

Honela erregistratu daiteke:

- Aurrez aurre, Lanbide-EEZren edozein bulegoren bidez.
- Webgunearen bidez: <https://www.lanbide.euskadi.eus/enpresak/-/nola-egin-langile-eskaera-bat/>

Aldez aurretik, desgaitasuna duen pertsonak Lanbide-EEZn izena eman eta alta egin behar du, lan-eskaintzak egin ahal izateko.

Informazio gehiago:

- *elefonoz: 945 160 601*
- *Lanbide-EEZren webgunearen bidez. <https://www.lanbide.euskadi.eus/lanbide-ha-siera/>*

Zer laguntza publiko edo prestazio daude laguntzaile pertsonalaren kostuak es-taltzeko?

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako (AMAS) prestazio bat da. Horren helburua honako hau da: ordu ko-puru baterako laguntza pertsonala kontratatzen laguntzea, onuradunari heziketa jasotzea eta lana egitea ahalbidetzeko, baita eguneroko bizitzako jarduerak modu autonomoagoan egitea ere. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan arautzen da eta horren kudeaketa foru-aldundien esku dago. Presta-zio hori eskuratu ahal izateko, aldeztu aurretik balorazio bat eginda eta mendetasun maila-ren bat aitortuta eduki behar da (I., II. edo III. mailakoa).

Zer egin prestazio hori eskuratu ahal izateko:

[ARABA.](#)

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/18-prestaci%C3%B3n-econ%C3%B3mica-de-asis-tencia-personal-peap->

[BIZKAIA. https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codi-go=11118&idioma=EU&dpto_biz=3&codpath_biz=3|7728|7734|11118](https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codi-go=11118&idioma=EU&dpto_biz=3&codpath_biz=3|7728|7734|11118)

[GIPUZKOA. https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/849](https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/849)

Bizitza independenterako programak (Gipuzkoa)

Gipuzkoaren kasuan, banakako arretako programak finantzatzeko dirulaguntzak ere ba-daude; zehazki, egoitza-baliabideak erabiltzeari uko eginda bakarrik edo familia-unitatea osatuz bizi nahi duten 18 urtetik gorako pertsonen bizitza independentea izatea bultzatze-ko laguntzak.

Laguntzaren zenbatekoa eskatutako arreta-ordua kopuru osoaren arabera zehaztuko da, baina, gehienez ere, eskatzailearen antzeko premiak dituzten pertsonen egoitza-arreta emateko zerbitzuen gehieneko prezioaren baliokidea izango da.

Norajoko:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/1705>

3. BIZITZA INDEPENDENTEA ERRAZTU DEZAKETEN BESTE ZERBITZU BATZUK

ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroko zerbitzu bat da, udalek kudeatua eta mendekotasun-egoeran edo mendekotasun-arriskuan dagoen erabiltzaileari bere etxean geratzen laguntzera zuzendua. Horretarako, etxe-ko arreta pertsonala eskaintzen zaio, bai etxean bere kabuz moldatu dadin, bai komunitate-ingurunean integratu dadin, eta, hala, isolamendu-egoerak saihestu daitezten.

Horrez gain, udal batzuek zaintzaile nagusiarri atsedean hartzeko aukera ematen diote, mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan dagoen pertsonari aldi baterako ELZ zerbitzua emanaz edo, dagoeneko zerbitzu hori jasotzen badute, intentsitatea aldi baterako indartuz.

Honako hauek eskuratu dezakete: mendetasun-mailaren bat edo mendetasun-arrisku aitortuta duten pertsonak.

Informazio gehiago eta eskaerak: *norberari dagokion udalean eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez.*

TELELAGUNTZA

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroko zerbitzu bat da. Telealarmako komunikazio-gailua barne hartzen du. Gailu horri esker, telefono linearen bidez, ekipamendu informatiko espezifikoko batekin, erabiltzailek berehala etengabeko arretako zerbitzu batekin harremanetan jartzeko aukera daukate –egunean 24 orduz ematen da, urteko egun guztietan, prestakuntza espezifikoak duten langileen eskutik– eta, beharrezkoa bada, behar duten arreta berehala eskuratuko dute. Hala, autonomoago eta segurago sentituko dira. Honako hauek erabil dezakete:

- a) Mendekotasun-arriskuan edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak.
- b) Bakarrik bizi diren adineko pertsona autonomoak.
- c) Gizartetik isolatuta geratzeko arriskuan egonik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren arabera telelaguntza-zerbitzuaren bidez artatzeko moduko premiak dituzten pertsonak.

Informazio gehiagorako eta eskaera egiteko: <https://www.euskadi.eus/telelaguntza-zerbitzu-publikoa/web01-a2gizar/eu/>

BONOTAXIA (Araba)

Arabako mugitzeko arazoak dituzten pertsonak taxi-zerbitzua garraiobide alternatibo gisa erabiltzeko laguntzak daude. Garraiorako laguntza aurreordainketa txartel izendun baten bidez ematen da. Txartel horretan, taxi-zerbitzua garraiobide alternatibo gisa erabili ahal izateko onartutako zenbatekoa kargatzen da.

Informazio gehiagorako eta eskaera egiteko:

http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1224026910485&idenc=1224026910470&language=eu_ES&pagename=IFBS/Page/IFBS_contenidoFinal&title=Convocatoria++de+ayudas+dirigidas+a+personas+con+problemas+de+movilidad,+para+la%0D%0Autilizaci%25C3%25B3n+del+

4. ETXEAN AUTONOMIA PERTSONALA IZATEKO ETA KOMUNITATEAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZA-PRODUKTUAK



² Iturria: UNE-EN ISO 9999 V2 araua. Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-produktuak. Sailkapena eta terminologia (2012) eta CEAPATen katalogoa.

Zer laguntza-produktuk erraztu dezakete autonomia pertsonala izatea?

Laguntza-produktuak pertsonen funtzionamendu-esparruak eta -eremuak (komunikazioa, mugikortasuna, ikaskuntza, joan-etorriak, elikadura, etab.) errazteko dira. Laguntza-produktuak honako eremu hauen arabera bereizten dira²:

- Ortesiak eta protesiak.
- Norbera zaindu eta babesteko laguntza-produktuak.
- Mugitzen laguntzeko tresnak.
- Etxeko lanak egiten laguntzeko tresnak.
- Etxebizitzetarako eta beste higiezin batzuetarako (egoitza, lantokia eta ikastetxea barne) altzariak eta egokitzapenak.
- Komunikazio, informazio eta seinaleztapenerako laguntzak.
- Produktuak eta ondasunak manipulatzeko laguntzeko tresnak.
- Gaitasunak trebatzeko/ikasteko laguntzak: gaitasun fisikoak, mentalak eta gizarte-trebetasunak hobetzeko laguntzak.
- Giroa, makineria eta erremintak hobetzeko laguntzak eta ekipoa. Aisialdirako laguntzak: jolasak, denbora-pasak, kirola eta aisialdiko bestelako jarduerak egiteko.
- Tratamendu mediko pertsonalizaturako laguntzak: pertsona baten egoera medikoa hobetzeko, kontrolatzeko edo mantentzeko laguntzak.

Zer laguntza publiko daude laguntza-produktu horiek erosteko edo eskuratzeko?

Laguntza-produktuak eskuratzeko bi bide daude:

- 1) Alde batetik, **Osasun Sistema, katalogo ortoprotesikoko** zenbait laguntza-produktu eskuratzeko (**gurpil-aulkiak, kanpoko protesiak, ortesi eta ortoprotesi bereziak**). Horiek medikuaren agindupeko osasun-produktutzat hartzen dira (mediku espezialistak preskribatu behar du produktua). Lurralde guztietan, laguntza-produktuak eta eskuratzeko baldintzak berberak dira, ez dago inolako alderik. Zehazki, «Katalogo ortoprotesikoa»-n adierazitakoak dira. Katalogo horretan, produktu mota bakoitzaren gehieneko finantzazio-zenbatekoak ere zehazten dira:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dac_inspeccion_medica/es_def/adjuntos/adaptacion-nuevo-catalogo.pdf

- 2) Beste alde batetik, **Gizarte Zerbitzuen Sistema**, honako hauek eskuratzeko::
 - a. Osasun Sistemak katalogo ortoprotesikoko produktu batzuk erosteko ematen dituen dirulaguntzen osagarriak: Osasun Sistemak ematen duen finantzaketa publikoa osatzeko laguntza gehigarriak dira. Aldez aurretik, prestazio ortoprotesikoa mediku espezialistarekin izapidetu behar da.
 - b. Beste esparru batzuetan autonomia pertsonala izateko laguntza-produktuak eskuratzeko dirulaguntzak: gaitasunak trebatu eta ikasteko, mugitzeko, komunikatzeko, manipulatzeko, kirola egiteko, etab. Kasu horretan, zuzenean eskatu eta izapidetu daitezke, aurretik Osasun Sistemari ezer kudeatu behar izan gabe.
 - c. Laguntza-produktuak lagapen bidez eskuratzeko.

Lurralde bakoitzean askotariko produktu, laguntza eta modalitateak eskura daitezke, kasuan kasuko araudi espezifikoaren arabera (horiek garatzea foru-aldundiei dagokie).

Nola eskuratu laguntza horiek?

1) PRESTAZIO ORTOPROTESIKOA (OSASUN SISTEMA)

- Katalogo ortoprotesikoko produktuen finantzaketa publikoa eskuratzeko, **medikuaren agindua** behar da; mediku espezialistak preskribatu behar du produktua, hain zuzen, eta preskripzio-dokumentu ofizial espezifikoa bete. Dokumentu horren atzealdean, oniritzia eskatzeko edo gastuak itzultzeko prozedura zein den adierazten da.
- Produktu batzuek kontrol berezia dute; beraz, laguntzak eskuratzeko **Ikuskaritza Medikoaren oniritziaren** zain egon behar da, ondoren finantzazioa jasoko dela bermatzeko.
- Inprimakian, Osakidetzak produktua erosten den establezimenduari zuzenean ordaindu diezaion eskatzeko aukera dago (hala, erabiltzaileak ez du dirua aurreratu beharko).
- Produktu ortoprotesikoaren aurrekontua egiteko eskatu behar da edo **Osasun Sailarekin lankidetzaz hitzarmen bat duen establezimendu batean** erosi:
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dac_inspeccion_medica/es_def/adjuntos/listado-establecimientos.pdf
- Dirulaguntza **eskatu** eta beharrezko dokumentazioa aurkezteko, **honako bide hauek daude**:
 - Pertsonaren bizilekuari dagokion osasun-zentrora joatea.
 - Posta elektronikoz edo aurrez aurre egitea, honako helbide hauetan:

Araban:

- Olaguibel kalea, 38, 01004 Gasteiz, Araba
- E-posta: reintegrosaraba@euskadi.eus
- Telefonoa: 945017116

Bizkaian:

- Rekalde etorbidea, nº 39 A. 48008-Bilbo.
- E-posta: ortoprotesis-bj@euskadi.eus
- Telefonoa: 94 403 15 00

Gipuzkoan:

- Sancho el Sabio etorbidea, 35 - 20010 Donostia
- E-posta: asistenciasanitaria-g@euskadi.eus
- Telefonoa: 943023020 / 943023028 / 943023029



2) LAGUNTZA-PRODUKTUAK EROSTEO DIRULAGUNTZAK (GIZARTE-ZERBITZUEN SISTEMA)

Lurralde bakoitzean, kasu bakoitzean zehazten diren laguntza-produktuak erosteko banakako laguntzak edo dirulaguntzak daude. Laguntzak produktu horien erosketa-kostua osorik edo zati batean konpentsatzeko dira.

Nora jo:

ARABA:

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-individuales-a-personas-que-tengan-reconocida-la-situaci%C3%B3n-de-discapacidad>

BIZKAIA:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/izapideen-katalogoa?prociD=1553&cld=si>

GIPUZKOA:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/15/1665>

Zer beste zerbitzu daude eremu horretan?

Hiru lurraldeetan, laguntza-produktuei buruzko orientazio-, informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak daude, nola funtzionatzen duten azaltzeko eta erakusteko.

Arabaren kasuan, produktu horiek mailegu bidez eskuratzeko zerbitzu bat ere badago. Arabako Autonomia Pertsonaleko Zentroan, halaber, laguntza-produktu jakin batzuetan edo eguneroko bizitzako jardueretan trebatzeko programa laburrak garatzen dira, pertsona bakoitzaren ezaugarri eta premia zehaztetara egokituak.

Nora jo:

ARABA(Autonomia Pertsonaleko Zentroa) :

https://www.araba.eus/cs/Satellite?c=IFBS_Centro_FA&cid=500002134499&pageid=1223896440018&pagename=IFBS%2FIFBS_Centro_FA%2FIFBS_centro

BIZKAIA (Gizatek):

https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=4658&Idioma=EU


GIPUZKOA (Etxetek)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/listado-tramites/-/tramiteak/xehetasuna/15/1665>



5. DIRU-SARRERA NAHIKOAK BERMATZEA

Zer baliabide ekonomiko izan ditzaket Bizitza Independenteko proiektu bati ekiteko?



A

Edonorentzat baldintza duinetan **LAN EGITEA** da diru-sarrerak lortzeko bide nagusia. Desgaitasuna duten pertsonen kasuan, lan-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrietan lan egiteko eskubidea bermatu behar da, Konbentzioan adierazitakoari jarraituz (27. art.). Hala ere:

- Desgaitasuna duten pertsona askok ez dute lana eskuratzeko aukerarik izaten.
- Edo, aukera badute, eskura dituzten lan-alternatibek ez diete beti bermatzen behar adinako diru-sarrerak izatea.

B

Eskura dituzten **DIRU-SARRERAK LORTZEKO BESTELAKO BIDEAK:**

ALTERNATIBAK	
1. Lanarekin lotutako prestazio ekonomikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordaindutakoaren arabera langabezia-prestazioa - Langabeziagatiko sorospen arruntak: - Aparteko laguntzak (LEA eta LSB)
2. Diru-sarrerak bermatzeko sistemako prestazioak	<ul style="list-style-type: none"> - Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) - Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera - Gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL)
3. Pentsioak eta familia-prestazioak	<ul style="list-style-type: none"> - Kotizaziopeko pentsioak: erretiroa, ezintasun iraunkorra eta heriotza. - Kotizazio gabeko pentsioak: erretiroa eta ezintasuna. - Ardurapeko seme-alabagatiko prestazioa. - Beste familia-prestazio batzuk. - Gizarte Ongizateko Funtsa (GOF)

1. LANAREKIN LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK:

ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO LANGABEZIA-PRESTAZIOA («langabezia kobratzea»).

Lanik gabe geratzen den pertsonak jardunean emandako aldian kotizatutakoaren arabera jaso dezakeen prestazio ekonomikoa da. Hileko kopuru bat eta irauten duen aldiko Gizarte Segurantzako kotizazioak barne hartzen ditu. Azken sei urteetan 360 kotizazio-egun edo gehiago metatuta eta kontsumitu gabe izanez gero eska daiteke. Kobratu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, azken sei hilabeteetako batez besteko kotizazio-oinarriak eta iraupea hartzen dira kontuan, metatutako kotizazio-egun kopuru osoaren arabera.

Informazio gehiago eta eskaera:

- *Aurrez aurre: Lanbide-EEZren bulegoetan (aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatzea gomendatzen da).*
- *Telefonoz: 945 160 601.*
- *Online: Lanbidenet, NANA eta sarbide-gakoa erabiliz.*
https://apps.lanbide.euskadi.net/apps/GE_IDENTIFICAR?LG=E&ML=&TPRG=L

LANGABEZIAGATIKO SOROSPEN ARRUNTAK

Kotizaziorik gabeko prestazio ekonomikoa dira, kotizaziopeko prestazioa agortu duten edo prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten langabeei zuzenduak.

Sorospen motak (besteak beste)

- **Langabeziagatiko sorospena:** ordaindutakoaren arabera prestazioa agortu duten edo prestazioa jaso ahal izateko baldintza guztiak betetzen ez dituzten langabeentzat da.
- **Sorospen partzialak:** kasu horietan ez da sorospen osoa jasotzen, zati bat baizik. Langileak izan duen azken kontratua lanaldi partzialekoa denean gertatzen da hori.
- **Kotizazio eskasiagatiko sorospena:** 360 eguneko gutxieneko kotizazio-aldia beteta ez dutenentzat. Laguntza hori eskatu ahal izateko, familia-ardurak dituztenen kasuan, hiru hilabete kotizatuta eduki behar dira, edo, ez dituztenen kasuan, sei hilabete.
- **Familia-laguntza:** familia-ardurak izanik (ezkontidea edo 26 urtetik beherako seme-alabak beren ardurapean), kotizaziopeko prestazioa jasotzeko eskubiderik ez dutenentzat, dela beharrezko 360 eguneko kotizazioa ez dutelako dela prestazioa jada kobratu eta agortu dutelako.
- **45 urtetik gorakoentzako sorospena:** kotizaziopeko langabezia-prestazioa agortuta izanik, errentarik ez duten familia-ardurarik gabeko 45 urteko edo hortik gorakoentzat.
- **52 urtetik gorakoentzako sorospena:** erretiro-adinera arte ematen zaie, 52 urte baino gehiago izanik errentarik ezarekin eta lan-bizitzan metatutako kotizazioekin lotutako baldintza jakin batzuk betetzen dituztenei.
- **Ezintasun baten berrikuspenagatiko sorospena:** beren egoerak hobera egin duela-ko erabateko baliaezintasuneko pentsioa galduta izanik, errentarik ez duten pertsonentzat.

Nola eskatu?

- SEPEren egoitza elektronikoan.
- Lanbideren edozein bulegotan (SEPEren egoitza elektronikoan edo telefonoz hitzordua lortu ondoren).

APARTEKO LAGUNTZAK (LEA ETA LSB)

Aparteko kasuetan, egoera jakin batzuetan, langabeziagatiko prestazio eta sorospen guztiak agortu dituzten pertsonentzat aurreikusten dira.

Laguntza motak:

- **Laneratzeko Errenta Aktiboa (LEA):** laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzako laguntza: 45 urtetik gorako iraupen luzeko langabeentzat, desgaitasuna duten pertsonentzat, itzulitako etorkinentzat, genero-indarkeriaren biktimentzat.
- **Langabeziagatiko sorospen berezia (LSB):** familia-kargak (seme-alabak edo ezkontidea beren ardurapean) dituzten langabeentzako sei hilabeteko laguntza luzaezina, iraupen luzeko langabeak badira edo laguntza arruntak agortu badituzte.

Nola eskatu?

- SEPEren egoitza elektronikoan.
- Lanbideren edozein bulegotan (SEPEren egoitza elektronikoan edo telefonoz hitzordua lortu ondoren).

2. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAKO PRESTAZIOAK

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA (DSBE)

Hileroko prestazio ekonomiko bat da, nahikoa baliabide ez duten pertsona eta familien oinarrizko premiei erantzutera eta lan-irteera bat topatzen laguntzera zuzendua.

Familia bakoitzaren diru-sarreraren osagarri bat da. Prestazioaren zenbatekoa hileko diru-sarreraren arabera izango da. Diru-sarrera horiek bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera deskontatuko dira gehieneko zenbatekoetatik.

- Inolako diru-sarrerarik ez badute: bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren arabera ezarritako hileko gehieneko zenbatekoa aitortuko zaie.
- Diru-sarreraren bat badute (lanaren, pentsioen, errenten, alokairuen, kalte-ordainen, eta abarren bidez lortuak): zenbatekoa kalkulatzeko, diru-sarrera guztiak bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera deskontatuko dira gehieneko zenbatekotik. Lanaren ondoriozko diru-sarrerari enplegurako pizgarriak aplikatzen zaizkie. Horiei esker, diru-sarreraren zati bat deskontatu daiteke, lan egiten duen pertsonari mesede egiteko.

Pentsio baten titularren kasuan, unitate ekonomiko independente bat eratu ahal izango dute, eta, gainera, hileko zenbatekoa orokorra baino handiagoa izango da.

Informazio gehiago: <https://www.lanbide.euskadi.eus/dbe/-/informazioa/dbe-ohiko-galderak1/>

Non eskatu?

- Aurrez aurre: Lanbide-EEZren bulegoetan (aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatzea gomendatzen da).
- Telefonoz: 945 160 601.

BIZITZEKO GUTXIENeko DIRU-SARRERA

Egoera ekonomiko ahulean dauden pertsonentzako estatuko laguntza. Langabeziagatiko sorospenen eta DSBEaren estaldurak osatzen ditu.

Informazio gehiago: Lanbideren bidez.



GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK (GLL)

Unean uneko laguntza ekonomikoak dira, gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu zehatz batzuei –ohikoak edo ezohikoak– aurre egiteko baliabide nahikorik ez duen bizikidetzaren unitate bateko kide diren pertsonen zuzenduak.

Nora jo?

Pertsona interesdunak erroldatuta dauden udalerriko udalera.

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2021/gizarte-larrialdietarako-laguntzak-gll-2021/web01-tramite/eu/

3. PENTSIOAK ETA FAMILIA-PRESTAZIOAK

KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK:

Normalean, prestazio ekonomiko horiek jaso ahal izateko, ezinbestekoa da aurretik Gizarte Segurantzarekin harreman juridiko bat eduki izana (kasu jakin batzuetan, gutxieneko kotizazio-aldi bat egiaztatzea behar da).

Motak:

Erretiroagatik: ohiko erretiroagatik edo bestelako inguruabarrengatik izan daiteke. Horien artean, desgaitasunagatik erretiro aurreratua aurreikusten da: murrizketa-koefizienteak aplikatuz, une bakoitzean erretiroa hartzeko eskatzen den ohiko adina murrizteko aukera ematen du, % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duten langileen kasuan edo, halaber, % 45eko edo gehiagoko desgaitasuna dutenen kasuan, betiere, azken kasu horretan, araudiaren arabera zehaztutako desgaitasunak badira eta pertsona horien bizi-itxaropena modu orokor eta nabarmenean murriztuko duten ebidentziak badaude.

Informazio gehiago:

<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10963/28393/1712?changeLanguage=eu>

Ezintasunagatik:

- **Partziala:** osoa izan ez arren, langileari bere ohiko lanbidean lan-errendimendua gutxienez % 33 murriztea eragiten dion baina oinarritzko zereginak egitea eragozten ez dion ezintasuna da.
<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10960/28750/28680/35615?changeLanguage=eu>
- **Osoa:** langileari bere ohiko lanbideko zeregin guztiak edo oinarritzkoak egitea eragozten dion baina beste lanbide batean aritzea ahalbidetzen dion ezintasuna.
<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10960/28750/28680/28700?changeLanguage=eu>
- **Erabatekoa:** langilea edozein lanbide edo ofiziotan jarduteko gaitasunik gabe uzten duen ezintasuna.
<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10960/28750/28680/28729>
- **Elbarritasun handia:** ezintasun iraunkorra izanik, galera anatomiko edo funtzionalen ondorioz bizitzako ekintza oinarritzkoetarako (adibidez, janztea, mugitzea, jatea edo antzekoak) beste pertsona baten laguntza behar duen langilearen egoera da.
<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10960/28750/28680/31908>

Heriotzagatik

- Alarguntza:
<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10964/10966/28489>
- Zurztasuna
<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10964/10966/28520>
- Familiakoen alde
<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10964/10966/28536>

Nora jo?

- Aurrez aurre: Gizarte Segurantzaren bulegoetara
- Online: Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikora

KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOAK:

Premia babesgarriko egoeran egonik, bizirauteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen aitortzen zaizkie prestazio ekonomiko horiek, inoiz kotizatu ez badute ere, edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar adinako denbora-tartean kotizatu ez badute ere.

Motak:

Baliaezintasunagatik: pentsio hori jasotzeko, besteak beste, % 65eko edo hortik gorako desgaitasuna aitortuta eduki behar da.

Informazio gehiago:

https://www.imserso.es/imserso_04/prestaciones_y_subvenciones/pnc_invalidez/index.htm

Erretiroagatik:

Informazio gehiago:

https://www.imserso.es/imserso_04/prestaciones_y_subvenciones/pnc_jubilacion/index.htm

Nora jo?

ARABA: Instituto Foral de Bienestar Social. c/ San Prudencio, 30- 01005 Vitoria-Gasteiz

<https://egoitza.araba.eus/es/-/11-pension-no-contributiva-pnc>

BIZKAIA: Departamento de Acción Social. Dirección de Promoción de la Autonomía Personal. c/ Lersundi, 14 - 48009 Bilbao (Bizkaia)

https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=7729&idioma=CA

GIPUZKOA: Departamento de Políticas Sociales. Dirección General de Planificación, Inversiones y Prestaciones Económicas. c/ Zarategui, 99 - 20015 Donostia-San Sebastián

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/listado-tramites/-/tramiteak/xehetasuna/864>

ARDURAPEKO SEME-ALABAGATIKO PRESTAZIOA:

% 65eko desgaitasuna edo handiagoa duen 18 urtetik gorako pertsona bakoitzeko diru-esleipena. Pertsona hori da prestazio horren «eragilea». Seme edo alaba bat onuradunaren ardurapekotzat jotzeko, harekin bizi behar du, ekonomikoki haren mende egon eta eskatzen diren gainerako baldintzak ere bete behar ditu.



Informazio gehiago:

<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10967/27924>

BESTE FAMILIA-PRESTAZIO BATZUK:

Familia-ardurak izateak eta, kasu batzuetan, seme-alabak jaiotzeak edo adoptatzeak pertsona batzuei sortzen dizkien premia ekonomikoak edo gehiegizko gastuak estaltzeko prestazioak dira.

Motak:

Seme edo alaba bat jaiotzeagatiko edo adoptatzeagatiko prestazio ekonomikoa, familia ugariarentzat, guraso bakarreko familientzat eta aita edo ama desgaituta duten familientzat.

<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10967/85>

Erditze edo adopzio anizkoitzagatiko prestazio ekonomikoa.

<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10967/33761>

Kotizaziopeko familia-prestazioa.

<https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10967/5079>

Nora jo?

- o Aurrez aurre: Gizarte Segurantzaren bulegoetara
- o Online: Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikora

4. BESTELAKO LAGUNTZAK

GIZARTE ONGIZATEKO FUNTSA (GOF)

Aldizkako prestazio ekonomikoa, gizarte-zerbitzuen osagarria, adinean sartuta daudelako edo ezintasun bat dutelako beren oinarrizko beharrianak asetzeko lanean aritu ezin diren eta bestelako sarrerarik esku-ratu ezin duten pertsonen zuzendua.

Nora jo?

Eskatzailea bizi den udalerriko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzura.



FISKALITATEAREN arloko ekin-tza positiboko neurriak:

Lurralde bakoitzean, asko-tariko zergak (BEZa, PFEZa, dohaintzak eta oinordetzak, ibilgailuen matrikulazioa, etab.) garatzeko araudi espe-zifikoa dago. Desgaitasuna duten pertsonentzako ekintza positiboko neurriei eta ho-rien araudi zehatzari buruzko xehetasun gehiago izateko, *[Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako baliabideen gida \(Elkartean, 2017, 11. epi-grafea\) ikus dezakezu.](#)*

Oro har, lurralde bakoitzeko berezitasunak alde batera utzi-ta, honako neurri hauek dau-de:

[Lan-errendimenduagatiko ho-bariak:](#)

% 100ekoa, % 33ko desgaita-suna edo handiagoa baina % 65ekoa baino txikiagoa duten langile aktiboentzat.

% 250ekoa, % 33ko desgaita-suna edo handiagoa baina % 65ekoa baino txikiagoa duten langile aktiboentzat, mugikorta-sun murriztuko baremoa badu-te, edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa dutenentzat.

[Desgaitasunagatiko kenkaria:](#)

Aplikatu beharreko desgaita-sunagatiko kenkaria desgaita-

sun-mailaren eta hirugarren pertsona baten laguntzaren beharraren arabera izango da.

[Desgaitasuna duten pertsonen jasotako prestazioen edo pen-sioen tributazioa](#)

Gizarte Segurantzak edo haren ordeko erakundeek aitortuta-ko prestazioak –ezintasunagati-ko prestazioak eta beste– PFE-Zetik salbuetsita daude.

[Gizarte-aurreikuspeneko sis-temetan desgaitasuna du-ten pertsonen alde egindako ekarpenengatiko murrizketak:](#)

Gizarte-aurreikuspeneko siste-metan desgaitasuna duten per-sonen alde egindako ekarpe-nak (baldintza jakin batzuekin) zerga-oinarri orokorrean mu-rriztu ahal izango dira, gehienu-ko muga jakin batzuen barruan.

[Desgaitasuna duen pertsona-ren ondare babestuari eginda-ko ekarpenengatiko kenkaria:](#)

Desgaitasuna duen pertsona-ren ondare babestuari ekarpe-nak egiten dizkioten pertsonen beren PFEZaren aitopenean kenkari bat aplikatzeko eskubi-dea dute.

[Mugikortasun urriko pertso-nentzako ibilgailuen eroske-](#)

[tan eta egokitzapenean BEZ murriztua.](#)

Mugikortasun urria duten edo gurpil-aulkia behar duten per-sonentzako ibilgailuak erosi edo egokitzean BEZ murriztua. Baita ibilgailu horiek konpon-tzeko zerbitzuetan ere.

[BEZ murriztuaren aplikazioa-ren beste berezitasun batzuk](#)

Desgaitasuna duten pertsonen-tzako protesiak, ortesiak eta barne-implanteak erostean BEZ murriztua.

Baita telelaguntza-zerbitzuetan, etxeko laguntzan, eguneko eta gaueko zentroetan eta egoitza-arretan ere.

[Ibilgailuen matrikulazioaren gaineko zerga.](#)

Ibilgailuen lehen matrikulazioan garraio-bide jakin batzuen gaine-ko zerga berezia ezartzen da. Baina desgaitasuna duten per-sonen eskusiboki erabiltzeko haien izenean erosten diren au-tomobilen lehen matrikulazioa zerga horretatik erabat salbue-tsita dago.

[Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga](#)

Urtean behin automobilaren zir-kulazioa zergapetzen duen toki-ko zerga bat da, udal bakoitzak kudeatua. Desgaitasuna duten

pertsonak eskusiboki erabiltzeko haien izenean matrikulatutako automobilak zerga horretatik salbuetsita daude. Salbuespen hori beren egoera mantentzen den bitartean aplikatuko zaie, bai desgaitasuna duten pertsonak gidatutako ibilgailuei, bai horiek garraiatzeko ibilgailuei, betiere kasu bakoitzean ezarritzen diren desgaitasun-baldintzak betetzen badira.

Desgaitasuna duten pertsonen ohiko etxebizitza.

Dagokion pertsona etxebizitza batean hiru urtez jarraian bizi izan ez bada bere desgaitasun-mailarako desegokia zelako, etxebizitzak ez du ohiko bizileku izaera galduko PFEZaren kenkaria eta Ondare Eskualdaketan gaineko Zergaren % 2,5eko tasa murriztua aplikatzearen ondorioetarako.

Desgaitasuna duen zergadunak edo desgaitasuna duen pertsonarekin bizi den zergadun

batek, inguruabar jakin batzuetan obrak egitea ohiko etxebizitza erostearekin parekatuko da, etxebizitza erosteagatik kenkaria aplikatzeari dagokionez.

Bizi-aseguru baten edo herentzia baten onuradun diren eta desgaitasuna duten pertsonentzako berezitasunak.

Bizi-aseguru baten edo herentzia baten onuradunek, legez desgaitasuna duten pertsonatzat jotzen badira, Oinordetzen gaineko Zergan murrizketak izango dituzte. Murrizketa horiek urtero eguneratzen dira.

Desgaitasuna duen pertsona batek egindako dohaintzak.

Senide jakin batzuei enpresak edo partaidetzak dohaintzan emanez gero, ez da ondare-irabazirik edo -galerarik izango, eskualdatzaileak ezintasun iraunkorra badu, baliaezintasun


erabateko edo handi baten ondorioz.

Informazio gehiago, lurralde bakoitzeko zerga-araubidearen araberrako berezitasunak barne:

ARABA. <https://web.araba.eus/eu/ogasuna>

BIZKAIA. <https://web.bizkaia.eus/eu/ogasuna-eta-finantzak>

GIPUZKOA. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna>



**ELKARTEAN ELKARTEAREN
ONDORIOAK ETA
ALDARRIKAPENAK**
EUSKADIN DESGAITASUNA
DUTEN PERTSONENTZAT
BIZITZA INDEPENDENTEKO
EREDU BAT BERMATZEKO
AUKERA, BALDINTZA,
ALTERNATIBA ETA
BALIABIDEETAN AURRERA
EGITEARI BEGIRA




Desgaitasuna duten pertsonak modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartuta egoteko duten eskubidea aitortuta dago, baina gaur egun ez da bermatzen. Are gehiago, kolektibo horrek, egunero, gainerako herritarrek baino oztopo eta zailtasun gehiago topatzen ditu eskubide hori gauzatzeko. Besteak beste, honako hauek: lana eskuratu ahal izateko zailtasun handiagoak, mendetasun sozial eta ekonomiko handiagoa, eta, ondorioz, gizartetik isolatuta eta baztertuta geratzeko arriskua; bizitza independentea eduki eta komunitatean aktiboki parte hartu ahal izateko dituzten askotariko beharrak asetzeko zerbitzu eta laguntza egokien garapen oraindik ere mugatua; etxebizitza irigarriak arrazoizko prezioan eskuratzeko aukerarik eza; irigarritasun unibertsaleko baldintzen defizita, etab. Faktore horien eta beste batzuen ondorioz, desgaitasuna duten pertsonak desabantaila-egoeran daude gainerako biztanleekin alderatuz, emantzipatu ahal izateari, bizi-sistema jakin baten arabera bizitzera behartuta egon gabe non, nola eta norekin bizi nahi duten erabakitzeari, eta komunitateko arlo guztietan aktiboki parte hartzeari dagokienez.

Gaur egungo zerbitzuak, prestazioak, baliabideak eta alternatibak ez dira nahikoak, ez dira egokiak eta ez dute pertsona bakoitzera egokitzeko behar besteko malgutasunik eskubide hori gauzatzeko bermatzeko. Gizarte-babeseko sistemen bidez (gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, osasuna...) egiten diren esku-hartzeetan eta orientazioetan ez da beti desgaitasuna duen pertsonaren ikuspegi integrala izaten; ez da beti modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartuta egoteko eskubidea duen pertsonatzat hartzen.

Eskubide hori bermatzeko, dagozkien arlo guztietan neurri eraginkorrak eta egokiak hartu behar dira, honako hauek ziurtatzeko³:

³ Iturria: Konbentzioaren 19. artikulua eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordearen 5. ohar orokorra (2017), modu independentean bizi eta komunitatearen barruan egoteko eskubidearen ingurukoa.



1. Etxebizitza duina, egokia eta irisgarria. Horretarako, honako hau egin behar da:

- Desgaitasuna duten pertsona guztiek etxebizitza irisgarria lortzeko askotariko aukerak izatea bermatu: etxebizitza sozialak, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak, bizitza independenteko proiektuak abiatu ahal izateko, zuzkidura-bizitokiak, etab.
- Etxebizitzetan beharrezko irisgarritasun-obrak egiteko behar adinako laguntzak eman eta etxebizitza-multzoak irisgarritasun handiagoa izatea bultzatu.
- Desgaitasuna duten pertsonen etxebizitza-programetarako sarbidea errazteko etxebizitza-politikak garatu, eta kolektibo horrentzako emantzipazio-programak aurreikusi.
- Desgaitasuna duten pertsonentzat etxebizitza irisgarria izateak eragiten duen gain-kostua kontuan hartu eta horrelako etxebizitzak eskuratzea erraztu, egoera horretara egokitutako kostuak dituzten etxebizitza-sustapenen bidez edo errealitate hori aintzat hartzen duten berariazko laguntzen bidez..

2. Laguntza pertsonala eman, beren bizitza errazteko eta komunitatean sartuta egotea ahalbidetzeko, baita gizartetik isolatzea edo bereiztea saihesteko ere, honako baldintza hauen arabera:

- Ezin du etxeko jardueretan laguntzera mugatuta egon; aitzitik, desgaitasuna duten pertsonak ingurune komunitarioan parte hartzeko edozein jardueratara zabaldua egon behar du. Bereziki, hezkuntza- edo lan-esparruetarako sarbidea izateko.
- Ezin du eguneroko bizitzako jarduera oinarriko eta instrumentalak erraztera mugatuta egon; aitzitik, bizitza independentea izateko eta komunitatean parte hartzeko edozein jarduera erraztu behar du.
- Laguntzaile pertsonalaren zereginak askotarikoak izan daitezke. Desgaitasuna duen pertsona bakoitzaren ezaugarrien, beharren eta borondatearen arabera izan behar dute.
- Zerbitzua desgaitasuna duen pertsonak kontrolatu behar du: berari dagokio plana egitea, nork, nola, noiz, non eta zein eratan emango duen erabakitzea, aginduak ematea eta zerbitzua emango duten pertsonak zuzentzea.



- Laguntza harreman pertsonal bat da. Laguntza jasotzen duten pertsonak kontratatu, gaitu eta gainbegiratu behar dituzte laguntzaile pertsonalak.
- Komunikazio-premia konplexuak dituzten pertsonak –komunikatzeko modu informalak erabiltzen dituztenak barne–, beren aginduak, erabakiak, hautuak eta/edo hobespenak formulatu eta helarazteko laguntza egokiak jaso behar dituzte.
- Laguntza pertsonalaren finantzazioak irizpide pertsonalizatuetan oinarrituta egon behar du eta enplegu duinerako arauak kontuan izan behar ditu. Desgaitasuna duen pertsonak kontrolatu behar du eta hari esleitu behar zaio, behar duen laguntza oro ordain dezan. Pertsona bakoitzaren beharrian indibidualen eta bizi-zirkunstantzien ebaluazioan oinarrituta egon behar du.

3. Bizitza independentea izateko beste zerbitzu eta laguntza batzuk: etxeko eta egoitzako askotariko laguntza-zerbitzuak eskuratu ahal izatea bermatu behar da, baita desgaitasuna duten pertsonari bizitzea eta komunitatean sartuta egotea errazteko eta komunitatetik isolatuta edo berezita ez geratzeko beharrezkoak izan daitezkeen komunitate-laguntzako bestelako zerbitzuak ere, honako baldintza hauekin:

- Pertsonalizatuta egon behar dute eta behar eta lehentasun horietara egokitzeko –eta ez alderantziz– behar bezain malguak izan behar dute.
- Ezin dute etxean laguntzera mugatuta egon; aitzitik, enplegu, hezkuntza eta politikaren eta kulturaren arloetako parte hartzearen esparruetara zabaldua egon behar dute, komunitatearen baliabide eta eremu guztietan.
- Komunitateko bizitza errazteko eta gainerako pertsonengandik isolatuta eta berezita egotea saihesteko pentsatuta egon behar dute, eta horretarako egokituta.
- Batetik, gizartean modu indibidualean, eraginkorrean eta norberak aukeratu bezala erabat sartuta egoteko eta erabateko partaidetza izateko, eta, bestetik, bizitza independentea izateko helburu orokorra lortzen laguntzeko pentsatuta egon behar dute eta helburu horrekin eman behar dira.

4. Baliabide ekonomiko nahikoak, desgaitasuna duten pertsonen bizi-maila egokia izatea ziurtatzeko, desgaitasunaren gainkostua kontuan hartuta. Horrek honako hau esan nahi du:

- "Gainerakoen baldintza berberetan lan egiteko" eskubidea ziurtatzea; "horrek berarekin dakar desgaitasuna duten pertsonentzat irekia, inklusiboa eta irisgarria den lan-merkatu eta -ingurune batean, askatasunez aukeratu edo onartutako lan baten bidez, norberak bere bizimodua aurrera ateratzeko eskubidea" (Konbentzioaren 27. artikulua), diru-sarrerak lortzeko lehentasunezko bide gisa, eta lana, era berean, gizarte-inklusioko oinarritzko tresna bat izatea.
- Pentsioak edo prestazio ekonomikoak jasotzeko aukera izatea, halakorik behar badute, haien eta haien familiek bizi-maila egokia izatea bermatzeko, eta, horrez gain, bizitza independentea izatea eta komunitatean sartuta egotea ahalbidetzeko. Besteak beste desgaitasunaren gainkostua kontuan hartzen duten pensio eta prestazio ekonomikoak.
- Fiskalitatearen arloan hobariak edo murrizketak eskuratu ahal izatea, ekintza positiboko neurri gisa, beren gastuak murrizteko aukera izan dezaten eta, horrela, beren desabantaila-egoera eta desgaitasunaren gainkostua arindu ahal izateko.

5. Laguntza-produktuak (bai Osasun Sistemako katalogo ortoprotesikokoak, bai Gizarte Zerbitzuen Sistemakoak), pertsona bakoitzaren berezitasunetara egokituak, norberaren autonomia sustatzeko. Honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Pertsona bakoitzaren partaidetza eta autonomia pertsonala ziurtatzera bideratuta egon behar dute.
- Eskaintzak zabala eta askotarikoa izan behar du, pertsonen askotariko funtzionamendu-eremuetarako (mugikortasuna, joan-etorriak, komunikazioa, entzumena, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak, etxebizitzaren egokitzapena, ibilgailuen egokitzapena, etab.) laguntzak eta produktuak barne hartu behar ditu, parte-hartze eraginkorra izan dezaten.
- Indibidualizazioa, pertsonalizazioa eta pertsona bakoitzaren behar aldakorretara, errealitatera, ingurunera eta bizimodura etengabe egokitzea bermatu behar dute. Etengabe berritu behar dira eta garapen teknologikoak aplikatu behar dituzte.

